


# HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO MEREZIMENDU-LEHIAKETA





# Deialdiaren nondik norakoak

## Zergatik oposaketak momentu honetan?

Arlo publikoan urteetan emandako **iruzurra konpontzeko**, egondako interinitate tasa altua, alegia.

Europak **bi bide ireki** ditu: bide juridikoa eta legeen bidezko bidea.


- **Bide juridikoa:** LEPa 3 urte baino gehio + OPEa gaindituta
- **Legea, dekretuak...** : esparru publiko osoan oposaketak egin behar dira.

## Zergatik Haurreskoletan Merezimendu-Lehiaketa egiten da?

Madrilgo Legeak diolako: lanpostu estrukturalak 12 urte baino gehiago dituztenean merezimendu-lehiaketen bidez bete behar dira.

Lanpostu kopurua murriztu daiteke bide juridikoa dela eta sententzia irmoa lortu dituzten pertsonak finkatzeko (372 - 28 = 344 plaza momentuz).

Sententzia gehiago atera ahala, kopurua gehiago murriztu daiteke.



# Deialdiaren nondik norakoak

Betekizun orokorrak eta espezifikoak ordezkoen zerrendan sartzeko eskatzen diren berdinak dira.

## Deialdia non topatu?

[www.haurreskolak.eus](http://www.haurreskolak.eus) orrialdean

edo EHAA - Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian

The screenshot shows the website interface for Haurreskolak. The header includes the logo 'HaurreSkolak' with 'es | eu' below it, and logos for 'EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO' and 'Bikam'. The left sidebar contains a menu with items: 'Haurreskolak', 'Mapa' (with sub-items 'Araba', 'Bizkaia', 'Gipuzkoa'), 'OPE/LEP' (circled in blue), 'Multimedia' (with sub-items 'Gure Bideoak', 'Gure erreportajeak'), and 'Berdintasuna' (with sub-item 'Berdintasunaren aldeko konpromisoa'). The main content area is titled 'Haurreskolak Partzuergoko helbidea eta telefonoak' and lists several PDF documents with their titles and dates.

Haurreskolak Partzuergoko helbidea eta telefonoak	
	<a href="#">Helbidea eta telefonoak</a>
	<a href="#">Nola heldu</a>
Orokorra	
	<a href="#">1.-215/2004 Dekretua, azaroaren 16koa, haur-eskol...</a>
	<a href="#">2.-Agindua, 2008ko apirilaren 10ekoa, 215/2004 Dek...</a>
	<a href="#">3.-297/2002 Dekretua, abenduaren 17koa, zero urte...</a>
	<a href="#">4.-Haurreskolak Partzuergoko arautegia - Eusko Jaur...</a>
	<a href="#">5.-Haurreskolak Partzuergoko arautegia - Estatutuak</a>



# Deialdiaren nondik norakoak

steilas

## Noiz hasiko da izen ematea?

2023ko **otsailaren 1**ean

Izena emateko **20 egun baliodun** egongo dira- Otsailak 28arte egongo da epea irekita.

**Argibideak:** online, [www.haurreskolak.eus](http://www.haurreskolak.eus)-en argitaratuko dira. Gida.

Eskabide elektronikoa egin beharko da.

## Zer aurkeztu behar da?

- Datu pertsonalak: nan a, izen abizenak...
- Helbidea, helbide elektronikoa, telefonoa
- Titulazioa
- Hizkuntza eskakizuna
- Alegatu nahi diren merituak

***Erabiliko den aplikatiboa ikusi arte ez dakigu nola aurkeztu beharko diren.***

## Tasa ordaindu:

Online edo offline (bankuen egoitzetan) **15.64 €**

Ordainagiria **ez** da bidali behar.



# Deialdiaren nondik norakoak

steilas

## 5. BETEKIZUNAK

Eskaneatuta bidali/igo beharko dira.

Originalak eskura izan prozesu osoan zehar, Zuzendaritza Batzordeak edo epaimahaiek edozein momentutan eskatu ahal dituztelako.

### **Orokorrak**

- NAN fotokopia
- Gaitasun psikiko/fisikoa - baimendu (klik)
- Zigor espediente... - baimendu (klik)
- Ezgaitasuna ... - baimendu (klik)
- Adingabeen babesa - baimendu (klik)
- Euskararen tituloa :
  - \* Aurkeztu
  - \* Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egon.

<https://www.euskadi.eus/euskara-tituluen-eta-ziurtagirien-erregistro-bateratua/web01-a2etzeb/eu/>

### **Berariazkoak**

Frogagirietan ikusi  
(13.diapositiba)



# Prozesua

- **Behin behineko zerrenda izena ondo eman eta ordainketa ondo egin dutenekin.**

Onartuak eta baztertuak agertuko dira.

Datarik ez dago argitalpenerako, jende kopuruaren arabera izango da.

10 egun erreklamazioa egiteko.

- **Behin-betiko zerrenda izena ondo eman eta ordainketa ondo egin dutenekin.**

- Langile finkoekin epaimahaiak sortu (kopurua izena emandako partehartzaileen arabera).

- Kalifikazioa egingo da.

- **Merezimenduen araberako behin-behineko zerrenda** (izengaien hurrenkera).

Bi zerrenda sortuko dira: finkatuko diren behin behinekoak eta erreserban daudenak.

10 egun erreklamazioak egiteko.

- **Merezimenduen araberako behin-betiko zerrenda.**

Hilabete bat gorako helegiteak aurkezteko.



# Prozesua

- **Lanpostua aukeratzea.**

Online edo presentziala ?

10 egun?

- Haurreskolak Partzuergoko egoitzan (Eibar), hitzorduarekin, **kontratua sinatuko da.**

Dokumentazio originala eraman beharko da; ez dira dokumentu berriak onartuko, soilik aurretik aurkeztutakoak.

- Osasun azterketa egiteko hitzordua Prebentzio departamentuak emanda.

- Probaldia 6 hilabetekoa izango da. Haurreskoletan antzinatasuna izanez gero, ez da probaldirik egingo.

**Prozesuan zehar dokumentuak garaiz ez badira aurkezten, lanpostua ez bada aukeratzen, hitzordura ez bazara joaten... prozesutik kanpo geratuko zara eta erreserbako zerrendaren hurrenkera jarraituz, hautagai berria aukeratuko da plaza hori betetzeko.**



# BAREMOAK:

steilas

## 1. Aurretiazko esperientzia hezitzaile gisa: 30 puntu

Azken 18 urteetan

### a. Esperientzia orokorra:

Baimendutako **haur eskola publikoetan** hezitzaile moduan emandako zerbitzuak

Hilabete bakoitzeko  
**0,05 puntu**

Gehienez **7 puntu**

Baimendutako **haur eskola pribatuetan** hezitzaile moduan emandako zerbitzuak

Hilabete bakoitzeko  
**0,01 puntu**

Gehienez **3 puntu**

### b. Esperientzia espezifikoa:

Esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri,

**Haurreskolak Partzuergoko** haur-hezitzaile moduan izandako esperientzia espezifikoa

Hilabete bakoitzeko  
**0,1 puntu**

Gehienez **20 puntu**



# BAREMOAK:

## 2. Prestakuntza akademikoa: 1 puntu

**Sartzeko alegatu ez den** ondorengo tituluengatik.

**0,5 puntu** titulo bakoitzangatik

- Haur Hezkuntzako gradua edo baliokidea.
- Pedagogia gradua edo baliokidea.
- Psikologia gradua edo baliokidea.
- Psikopedagogia gradua edo baliokidea.
- Haur Hezkuntzako Lanbide Heziketako Goi Mailako zikloa.



# BAREMOAK:

## 3. Hautaketa prozesuak gainditu izatea eta ordezkapen zerrendetan egotea: **7 puntu**

Haurreskolak Partzuergoan hezitzaile finko izateko **2008 eta 2009ko hautaketa-oposizio prozesuen baitan oposizio fasea gainditzeagatik.**

**Bakoitzak 2,5 puntu**

Gehienez **5 puntu**

Haurreskolak Partzuergoan aldi baterako hezitzaile beharrak betetzeko **ordezkapen zerrendetan egoteagatik**

**2 puntu**



# BAREMOAK:

## 4. Ikastaroak: 2 puntu

Lehen Zikloko Haur Hezkuntzako gaiekin zerikusia duten prestakuntza-ikastaroak. Haurreskolak Partzuergoak, Hezkuntza Sailak, Unibertsitateek eta bestelako administrazio publikoek eman, koordinatu edo homologatutako ikastaroak.

**15 eta 39 ordu artean**

**0,30 puntu.**

**40 ordu edo gehiago**


**0,50 puntu.**



# Desenpatea

Merezimenduen atal bakoitzean **puntuaziorik handiena** duena ondoren zehazten den hurrenkeran egingo da **desenpatea**:

- Esperientzia espezifikoa.
- Hautaketa prozesuak.
- Esperientzia orokorra.
- Beste merezimendu batzuk.



## FROGAGIRIAK:

### 1.- Emandako zerbitzuak, 2.1 atalari dagozkionak:

#### a) Haurreskolak:


Haurreskoletako lan esperintzia ofizioz hartuko ditu kontuan Haurreskolak Partzuergoak.

#### b) Gainerakoan, honakoen bidez:

– Zerbitzu-orria, dagokion hezkuntza-administrazioko organo eskudunak emana, honako hauek jasotzen dituenak: lanpostuaz jabetzeko eta uzteko data, kidegoa eta espezialitatea.

– Lan kontratua non lan kategoria adierazten den eta Gizarte Segurantzako ziurtagiria, non agertuko den alta data, zentroaren izena eta altan egondako epealdia.

– Zuzenbidean onargarri den edozein frogabidez 39/2015 Legearen 77.1 artikuluari jarraituz.



# FROGAGIRIAK:

**2.- Prestakuntza akademikoa** tituluaren fotokopia bidez egiaztatuko da, edo, hala badagokio, hura emateko eskubideak ordaindu izanaren frogagiriaren bidez.

## 3.-Prestakuntza-ikastaroak:

Ikastaroak ziurtagiri bidez egiaztatuko dira.

Bertan ikastaroaren izenburua, zein datatan izan den, zenbat ordukoa izan den eta zein erakunde publikok eman duen zehatz-mehatz agertuko da.

Hezigunean Haurreskolak Partzuegoko ikastaroak lortu daitezke.

## 4. -Oposaketak:

2008ko eta 2009ko OPEak Haurreskolak Partzuergoak ofizioz barematuko ditu.

